

A14

Mundu guztian orain ez dago...

Poema honetan lau zati bereizten dira: lehenengoan (1-50 lerroak), azpimarratzen da, damak mutilaren bihotza eta askatasuna idoki arren, azkenik mutilak lortu duela neska kateaz lotzea, eta, horregatik hain zuzen, maitaleak dama bat zerbitzeko zer egin behar duen irakasteko moduan dagoela. Bigarren partean (51-104 lerroak), “zaoz exilik” horren ondoren, hogeita lau aholku ematen ditu maitalearentzat, *Ars amatoria* gisa, maitatuaren baiezkua lortzen laguntzeko. Hirugarren zatian dioenaren arabera (105-110 lerroak), gehiago ikasi nahi izanez gero maitearen borondateari egin behar zaio kasu. Azkenik, laugarren zatian (111-120 lerroak), berriz aipatzen du bere kasu partikularra; lerro horien mezua ez da gardena, baina badirudi hurrengo asteazkenerako ezarri duela hitzordua neskarekin. Edozelan ere, maitalearen helburua ez da inola ere platonikoa, sexuarekin lotua baino: *bera ezta etzingo ohean zabal-zabalik* (85-86 lerroak) edo *artalastoa agin egizu* (117. lerroa) adierazpideak argiak dira zentzu horretan.

<1181r>	Mundu guztian orain ez dago	
	gizon kontentuagorik	
	oita ¹ nola ni orain nagoan,	
	Zeruko Jaunak gurarik,	
	zazpigarren hilabetean	5
	urtexe ² onau sarturik,	
	hiru egun kunplidu baga	
	oi setienbrek emunik, ³	
	zeina zan egun alegerea,	
	ene laztanak gurarik,	10
	ene laztanak gurarik eta ⁴	
	neurk ⁵ hala trabajadurik. ⁶	
	Amore poderoso, jauna,	
	asko deusut eskerrik; ⁷	
	zu serbitzeko ez jat faltako	15
	sekula borondaterik.	
	Denpora baten lotu ninduzun	
	katea fortitz ⁸ batekin;	
	Jaun Zerukoa alabadu, ze	
	orain banago ⁹ librerik!	20

¹ *oita*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

² *urtexe*: ‘urtetxo’; ez dakigu zehazki zein balio eransten dion izenari *-xe* atzizkiak.

³ *zazpigarren hilabetean... oi setienbrek emunik*: ‘irailaren 3an’; iraila zazpigarren hilabetea zen erromatar egutegian (egutegi hori K. a. 46. urtera arte izan zen indarrean), eta Lazarragaren *setienbre* (latinez *septembris*) etimologikoki loturik dago *septem* “zazpi” zenbakiarekin. Ez dakigu horregatik aipatzen den *zazpigarren hilabetea*, ala akats baten ondorio den, iraila bederatzigarren hilabetea baita hala juliotar egutegian (zeina 1582ra arte izan baitzen indarrean) nola gregoriar egutegian (1582az geroztik gaur arte dugun egutegian). Eskuizkribuan bada antzeko esapide bat: *abuztu hilak / egun bat kunplitzakarik* (A28: 47-48).

⁴ *ene laztanak gurarik / ene laztanak gurarik eta / neurk ala trabajadurik*: Ahozko literaturan sarri agertzen da anadiplosia: testu-zati baten azken zatia hurrengoaren hasieran errepikatzea eta kateatzea; *bihurkia* deitu zion Manuel Lekuonak ahozko euskal literatura aztertzean. Testuan behin baino gehiagotan agertzen da baliabide hori.

⁵ *neurk*: ‘neuk’, izenordainaren forma zaharrean.

⁶ *trabajadurik*: ‘ahaleginak eginik’.

⁷ *asko deusut eskerrik*: ‘eskerrik asko ematen dizut’.

⁸ *fortitz*: ‘bortitz, sendo’.

	Donzeilatxo bat ekusi neben, lindea parebagarik; oi neure bihotz amorosoau idogi ¹⁰ zidan bertati. ¹¹	
	Neuregaz neben libertadea eroan zidan berekin; ¹²	25
<1181v>	ni haren minez ¹³ hilte ¹⁴ ninzan da ¹⁵ ha beti alegererik. Nik haregaiti ¹⁶ iragaro ¹⁷ dot munduan asko penarik;	30
	hark enegaiti oi oraingaino ¹⁸ eztau edugi ansirik. ¹⁹ Oi orain, barriz, nik ifini dot bera kateaz loturik;	35
	oi, bada bere, ²⁰ nik haregana asko dot borondaterik. ²¹ Ez dakizunok jakin egizu, ²² ze zaoz ²³ engainadurik, zerren dama bat serbietako asko behar da gauzarik;	40
	amoraduak zer behar daben banago irakatsirik. Oi enzuzu ta jakin dagizun, ²⁴ badozu borondaterik, ²⁵	45
	zegaiti askok jakin ez arren egon oi da ²⁶ tristerik. Irakasterren ²⁷ ez nago eske ²⁸ bapere intereserik; ²⁹ oi lenaengo abantajea ³⁰ dasadan, ³¹ zaoz exilik. ³²	50

⁹ *banago*: ‘nago’.

¹⁰ *idogi*: ‘idoki, erauzi, kendu’.

¹¹ *bertati*: ‘berehala’.

¹² *berekin*: ‘berekin, berarekin’.

¹³ *haren minez*: ‘haren irrikaz, hura biziki desiratuz’.

¹⁴ *hilte*: ‘hilten’; -n galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*n*- hurrengo silaban).

¹⁵ *da*: ‘eta’.

¹⁶ *haregaiti*: ‘harengatik’.

¹⁷ *iragaro*: ‘igaro, sufritu, jasan’; berez *igaro*-ren kausatiboa da.

¹⁸ *oraingaino*: ‘oraindano, orain arte, oraindik’.

¹⁹ *ansirik*: ‘ardurarik, desirarik’.

²⁰ *bada bere*: ‘gutxienez, bederen’.

²¹ *asko dot borondaterik*: ‘borondate asko dot, maitasun handia dut’.

²² *Ez dakizunok jakin egizu*: ‘ez dakizuenok jakin ezazue’.

²³ *ze zaoz*: ‘ez zaitez(te) egon’.

²⁴ *enzuzu ta jakin dagizun*: ‘entzun ezazu(e) eta jakingo duzu(e)’.

²⁵ *badozu borondaterik*: ‘baldin baduzue borondaterik’.

²⁶ *egon oi da*: Amoradua egon ohi da tristerik, alegia.

²⁷ *Irakasterren*: ‘irakastearren, irakasteagatik, irakastearen truke’.

²⁸ *Irakasterren ez nago eske / bapere intereserik*: ‘irakastearren ez dut eskatuko batere interesik’; aholkuak mustruk emango dituela adierazi nahi du.

²⁹ *intereserik*: ‘interesik’.

³⁰ *abantajea*: ‘abantaila, bikaintasuna’.

	bere laztana dakusenean, ebili ultra graberik; ⁴⁹	80
	sekula, barriz, ze besakeo ⁵⁰ besteren abantajarik; denporeorrek emun badagi, ⁵¹ ez egon tentatzakarik, ⁵²	85
	zegaiti bera ezta etzingo ⁵³ ohean zabal-zabalik; gabaz-egunaz ze berakuske ⁵⁴ sekula kobardiarik; laztanagana joango bada, ⁵⁵ ze beroake ⁵⁶ lagunik;	90
	bere begiak oi berabilke ⁵⁷ laztantxoagan josirik; sekula gauza gutxiagaiti ⁵⁸ ze begi sentimenturik; ⁵⁹ oi beazatu badagi bere, ⁶⁰	95
<1183r>	ez erakutsi bildurrik; oita irago ze bekikeo ⁶¹ bisitatzaka ⁶² asterik, zegaiti hartu ez daikean ⁶³ oi beste serbidorerik; ⁶⁴	100
	oi alkanzadu daikeano ⁶⁵ ez hartu jagin ⁶⁶ zelorik; gabaz-egunaz serbidu begi sekula asperzakarik. ⁶⁷	105
	Oi gehiago gura badozu, amoraduak, ikasi, estudiadu, arren, egizu laztanaen borondateti, zerren bestela oita ez jatzu probetxaduko gauzarik.	110

⁴⁹ *graberik*: ‘seriorik, zintzorik’.

⁵⁰ *ze besakeo*: ‘ez biezaio esan’.

⁵¹ *denporeorrek emun badagi*: ‘denborak eman badeza, aukera izanez gero’.

⁵² *tentatzakarik*: ‘saiatzekerik, saiatu gaberik’.

⁵³ *etzingo*: ‘etzingo, etzango’.

⁵⁴ *ze berakuske*: ‘ez beza erakuts’.

⁵⁵ *laztanagana joango bada*: ‘laztanagana joateko’.

⁵⁶ *ze beroake*: ‘ez beza eroan, ez beza eraman’.

⁵⁷ *berabilke*: ‘erabil bitza’.

⁵⁸ *gauza gutxiagaiti*: ‘gauza txikiagatik’.

⁵⁹ *ze begi sentimenturik*: ‘ez bedi atsekabetu, ez bedi kexatu’.

⁶⁰ *beazatu badagi bere*: ‘mehatxatu badeza ere’.

⁶¹ *irago ze bekikeo*: ‘ez bekio igaro’.

⁶² *bisitatzaka*: ‘bisitatzake, bisitatu gabe’.

⁶³ *zegaiti hartu ez daikean*: ‘geroan har ez dezan’.

⁶⁴ *serbidorerik*: ‘adiskiderik, gorte-egilerik’; hau da, dama gorteatuko duen beste gizonik.

⁶⁵ *alkanzadu daikeano*: ‘erdietsi arte’.

⁶⁶ *ez hartu jagin*: ‘ez hari hartu egin, ez hari hartu’; *jagi*- hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NOR-NORI-NORK) ezkututzen dela.

⁶⁷ *asperzakarik*: ‘nekatzekerik, nekatu gaberik’.

Mundu guztian ni baino ezta
 oi amoradu firmerik.⁶⁸
 Ene laztanak merezidu dau
 oi asko abantajarik;
 ha serbitzerren⁶⁹ aspertu⁷⁰ banax, 115
 banago deskansadurik.
 Artalastoa agin egizu,
 nik al dagidan gauzarik;
 eguaztena ifini nauzu
 obligazioz beterik.⁷¹ 120
 Fin

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A14 – Mundu guztian orain ez dago... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

⁶⁸ *firmerik*: ‘firmeagorik’.

⁶⁹ *serbitzerren*: ‘zerbitzatzearren, zerbitzatzeagatik’.

⁷⁰ *aspertu*: ‘nekatu’.

⁷¹ *Artalastoa agin egizu, / ... obligazioz beterik*: Poemaren bukaera ilun samarra da, eta ez dugu uste erabateko interpretazio sendoa lortu dugunik. Lehenengo bi lerroak honela uler litezke: ‘Arto-lastoa enkarga ezazu, nik (egin) ahal dezadan gauzarik’; poetak arto-lastoa enkargatzen du ohea prestatzeko eta bertan sexuarekin lotutako *gauzak* egiteko. Azken bi lerroetan, asteazkenean neskarekin hitzordua duela adierazi nahi du seguruenik, baina, hiru erataria uler daitekeela uste dugun arren, ez daukagu erabateko interpretazio sendorik: (a) ‘eguaztena ipini didazu obligazioz beterik’; (b) ‘eguaztena [bokatiboa], ipini nauzu obligazioz beterik’; (c) ‘eguaztenean ipini nauzu obligazioz beterik’.